

Egia



AUZO BIZI BAT, ALDAPEN ARTEAN

Herri txiki baten izaera du. Horixe diote egitarrek eta horixe bera erakusten du egunerokoak. Sortzailea, langilea eta euskalduna, halakoxea da Egia // I-VIII

ESTITXUZABALA



Auzo Bizia. Donostia Hiria



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Herri txiki eta bizi bat ageri da Egiako malden artean, egiatarrek egiatarrentzat egina. Izaera propioa du, auzo antolatua da eta langilea; sortzailea eta euskalduna ere bada.

Gustuko lekuan, aldaparik ez

—ARITZ SORZABAL

Auzo antolatua, euskalduna, langilea, sortzailea... modu askotan definitu daiteke Egia. Izaera propioa duela ezin du inork ukatu, bai gizarte arlotik begiratuta, baita orografia-ri dagokionean ere. Herri txiki bat ageri da aldapen artean, egiatarrek egiatarrentzat egina.

Aitzindaria ere bada. Donostiako lehen jotetxe begetarianoak bertan ireki zituen ateak; Garraxi, alegia. Bizia da, zalantzarik gabe; hainbat eta hainbat eragilek egiten dute lan auzoarentzat. Jai giroa ere ez da falta; Porrontxo jaiek hiru hamarkada baino gehiagoko historia dute. Auzoari *Soho* goitizena jartzea ere ez da kasualitatea, diziplina anitzeko artista ugari bizi baitira Egian. Industria iragan oparoari buruz, zer esanik ez; Tabakalerak hitz egingo balu...

Donostiako Hiri Behatokiaren 2014. urteko datuen arabera, 14.828 biztanle ditu Egiak, 7.976 emakume eta 6.852 gizonezko, hiriren biztanleriaren %8. Donostiak 186.091 biztanle ditu, urte bereko datuen arabera.

Biztanleriaren auzokako banaketa ez da gehiegi aldatu azken urteetan. Hiriaren erdialdea eta hirirako sarbide nagusiak dira dentsitate handiena dutenak; Amara, Erdialdea eta Altzan donostiarren %38,6 bizi dira. Bigarren mailan, 10.000 eta 20.000 biztanleko tartean, beste ardatz handi bat dago, eta hor ageri da



Bi emakume erosketak egiten, Karmengo Ama kalean. LIDE FERREIRA

Egia; Gros, Intxaurren, Antigua eta Aieterekin batera.

Egiak biztanleria kopuruari eutsi dio, ia galerarik izan gabe, 2013 eta 2014 urteen arteko epealdian -15 gutxiago besterik ez-. Auzotarren adinaren batez bestekoari dagokionez, auzo zaharren artean dago. Donostiako

biztanleriaren batez besteko adina 45,1 urtekoa bada, Egian 46,3 urtekoa da; emakumeak, 48,3; gizonezkoak, 43,9. Bakarrik Erdialdeak eta Grosek dituzte batz besteko handiagoak; 48,8 eta 48,6, hurrenez hurren.

18 urtetik beherako 2.158 egiatar daude; 18-29 arteko, 1.544;


30-44 arteko, 3.177; 45-64 arteko, 4.264; 65-84 arteko, 3.005; eta 84 urtetik gorako, 680.

Egiatarren artean, bada kopuru bat atzeritarrak: 1.123 pertsona. 612 emakume eta 511 gizonezko, zehazki. Hain justu, atzeritarrek auzoko biztanleriaren %7,6 hartzen dute. Bakarrik

Erdialdeak, Grosek eta Amarak dute ehuneko handiagoa.

Sare propioa

Donostiaren erdialdeko auzoetan daude saltoki gehienak: hiriko establezimenduen ia laurdena Erdialdean biltzen da (%23,9), eta, ondoren, Grosen



DEKORAZIOA
ALTZARIAK
BARNE DISEINUA
www.apal.eus

AMETZAGAÑA 7 BEHEA · 20012 DONOSTIA

(%12,6) eta Amaran (% 11,9). Egia zenbaki horietatik urruti dago (%6,2), baina badu bere sare propioa, zerbitzu arloan batez ere.

Orokorrean, 1.168 establezimendu daude auzoan, eta horiek 4.720 pertsoneri enplegua ematen diete, betiere 2014. urteko datuei erreparatuta.

Zerbitzuak sektoreak 991 establezimendu ditu Egian, eta 4.338 pertsoneri ematen die lan guztira. Eraikuntza arloak 134 establezimendu ditu, 207 langilerekin. Industriak, berriz, 40 establezimendu ditu, 125 langilerekin.

Egia aitzindaria da; Donostiako lehen begetarianoak bertan ireki zituen ateak

'Soho' goitizena ere jasotzen du auzoak, artista ugari bizi direlako Egian

Bestalde, txikizkako merkataritza arloko 131 denda daude, 348 langilerekin. Ostalaritzak, bere aldetik, 64 establezimendu ditu, 173 langilerekin.

Langabeziari dagokionez, Donostian 9.926 langabe zeuden martxoaren 31n, Lanbideren zerrendetan oinarritutako Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren Lan Behatokiak emandako azken datuen arabera. Horietatik 825 egiatarrak dira, 429 emakume eta 396 gizonezko. Egian, langabezia tasa %13,8koa da.

Zerbitzuen sektorea da kolpatuena Egian, Donostian bezala, 623 langaberekin. Industria sektorea dator ondoren, 70 langaberekin; eraikuntza, 59 langaberekin; eta nekazaritza eta arrantza, 7 langaberekin. Aktibitatearik gabeko sektoreak 66 langabe biltzen ditu auzoan.

Urteko lehen hiruhilekoko datuek irakurketa propioa dute Egian. Donostian langabe kopuruak gora egin arren, auzoan lanpostuak mantendu dira. Hain zuzen ere, urtea 258 langabe gutxiagorekin abiatu zen Donostian, baina Egian ia ez du eraginik izan hilabeteotako joerak. 824 langabe zeuden auzoan urtarrilaren 1ean, eta 825 langabe daude gaur egun.

Hori bai, Egia ere kolpatu du azken urteotako krisiak, hiriko gainontzeko bazterretan bezala; ia mila langaberen langara iritsi zen auzoa, 2013. urtean.

asorzabal@hitza.eus

Hitzetatik ekintzetara igaro dira euskararen erabilera sustatzeko

-A. SORZABAL

Egia Euskaraz batzordeak Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako proiektuari ekin zion urtarrilaren hasieran. Hala, zortzi astez, eguneroko bizitza euskaraz egin dute hainbat eragilek auzoan, astebeteko txanden bitartez. 350 lagunek baino gehiagok egin dute euskaraz bizitzeko ahalegina, eta ateratako ondorioen berri eman dute Egia Euskaraz Batzordeko lagunek.

Bertako kide Aitziber Gurutzeagaren hitzetan, «Egia esan, espero baino askoz baikorragoa izan da; eta zoriondu nahi ditugu parte hartu duten norbanako eta eragile guztiak. Astebeteko ariketa horrek balio izan du jarrera batzuk ikasteko; beraz, hau ez da bukaera izango, hasiera baizik».

Guztien ekarpenak onak izan dira, Gurutzeagaren hitzetan: «Bagenekien %100 euskaraz bizitzera ez ginela iritsiko, mugak ditugulako, baina lortu duguna da euskara gehiago erabiltzea. Batetik, jendearen kontzientzia eragin du, eta ez bakarrik partaideetan. Bestetik, norbanakoak bere ingu-

ruan eragin du, denda batera joan eta euskaraz eskatzean, adibidez».

Gauzak hala, euskaraz bizi zela uste zuena bere gabeziak ohartu omen da, eta oso erraz josten zuela maiz gaztelerara: «Hori oso garrantzitsua da aurrera begira jarrera aktiboago bat hartzeko».

Hizkuntz komunitate bat trinkotu dutela uste du Gurutzeagak, eta aurrera begira erabilera areagotzeko pausoak eman ditzutela: «Orain, esperientzia jaso nahi dugu, eta jakin nahi dugu aurrera begira partaideak zer

egiteko prest dauden. Ondorioak atera eta ikusiko dugu zein beste kanpaina egin».

Hirutik bat, erdaldun

Bestalde, zenbakietara itzulita, auzotarren hizkuntza gaitasunari dagokionez, Donostiako Udalak 2011. urteko datuekin osatu du 2015-2019 arteko Euskararen Plan Orokorra. Txostenaren arabera, 5.571 euskaldun daude Egian; 3.966 ia euskaldun; eta 4.745 erdaldun. Horrenbestez, hiru egiatarretatik bat da erdalduna. Euskal Estatistika Erakundearen (Eustat) datuak dira.



Proiektuaren aurkezpenean egindako talde argazkia. AGURTZANE ALTUNA

Auzoaren argazkia

BIZTANLERIA

14.828. Donostiako Hiri Behatokiaren 2014. urteko datuen arabera, 14.828 biztanle daude Egian; 7.976 emakume eta 6.852 gizonezko.

46 urte. Donostiako biztanleriaren batez besteko adina 45,1 urtekoa da; Egian, 46,3 urtekoa.

84 urtetik gorako 680 auzotar. Egian 680 auzotar daude 84 urtetik gora dutenak. 45 eta 64 urte bitarteko biztanleen artean dago kopururik handiena: 4.264. Beste muturrean, 18 urtetik beherako 2.158 egiatar daude.

ZERBITZUAK

131 denda. Txikizkako merkataritza arloko 131 denda daude, 348 langilerekin.

64 taberna eta jatetxe. Ostalaritzak 64 establezimendu ditu auzoan, 173 langilerekin.

LANGABEZIA

825 langabe. Egian 825 langabe daude 2016ko martxoaren 31ko datuei erreparatuz gero, Lanbideren zerrenden arabera.

429 emakume. Langabezia 429 emakume daude zehazki, eta 396 gizonezko.

623 langabe, Zerbitzuetan. Zerbitzuen sektorea da kolpatuena, alde nabarmenarekin, 623 langaberekin.

Autoak

Etxeak

Negozioak

Bizitza



Komunitateak

Osasuna

Heriotzak

Aurrezkiak

Bulego berria Egian; aholkua eskatu konpromisorik gabe
KARMENGO AMA 16, behea - DONOSTIA - Tel.: 943 35 94 99

anita

MODA eta OSAGARRIAK



38 eta 54 bitarteko NEURRIAK
Karmengo Ama, 23 - Egia
DONOSTIA - Tel.: 943 04 78 50



GARRAXI jatetxe
BEGETARIANO



tejeria 9
EGIA
Donostia
Tel.: 943 27 52 69




24 orduko
etengabeko
zerbitzua

Telefona:
943 279619

Urgentziak:
665 700 100

SARRAILA DENDA
PROFESIONALA



ATEAK IREKITZEA
SARRAILEN KONPONKETA
ETA ALDAKETA
MOTA GUZTIETAKO GILTZA
ETA KONTROLAGAILUEN KOPIAK
GILTZA OROKORRAK
ETA KODE BERTINAK
IBILGAILUEN SARRAILAGINTZA
KUTXA GOTORRAK

Mandasko Dukea, 51 - DONOSTIA

www.ya-ves.com
ya-ves@ya-ves.com

—NEREA LIZARRALDE

Kultura, politika, ingurumena, euskara, aisialdia, kirola, jaiak... hainbat arlotan lanean ari diren eragilez saretutako auzoa da; 30 baino gehiago dira. Autogestioan oinarritutako egitasmo bizi eta landuak dira. Askok, ordea, ez dute euren proiektuak aurrera eraman ahal izateko lekurik, eta behar hori asetzeko mobilizatu behar izan dira.

Egiako eragileen artean Auzoetxea izeneko egitasmoa abiatu zuten, elkarlanean oinarrituriko proiektu autogestionatuen gunea sortzea zuten helburu gisa. Gizarte Kutxaren Onkologiko zaharra utzita, eta hutsik zegoela ikusita, bertan sartu eta erabiltzen hasteko erabakia hartu zuten 2014ko maiatzean. Auzoetxea, ordea, bertan behera geratu zen, sartu eta berehala kanporatu baitzituzten.

Gazte asanblada izan zen Auzoetxearen egitasmoa gehien landu zuen eragilea. Egiako Txomin Campok azaldu du gazte asanbladaren sorreratik abian zegoen ideia bat zela: «Auzoan hainbat gaztetxe izan dira, eta galdutako espazioa berreskuratu behar zela erabaki zen».

Lehen gaztetxea, Jareñon

Donostiako lehen gaztetxea, hain zuzen, Egian sortu zuten, 1987. urtean, 70.eko hamarkadatik utzita zegoen Jareño lantegian. Iñaki Subijana egiatarra gaztetxeko kide izan zen. Azaldu du proiektu sendo bat zela: «Euskara talde bat genuen, argazki laborategi bat, txalaparta eta pintura lantegiak, liburutegia... eta garaiko musika talde indartsuenak izan ziren; Kortatu, Cicatriz, Su Ta Gar eta Ruper Ordorika, besteak beste».

Udalak, ordea, Egia kultur etxea eraiki nahi zuen bertan, eta gaztetxea bota zuten: «Bulego bat eman nahi ziguten eraikin berrian, baina ezezkoa eman genuen. Ezinezkoa zen gure proiektu



Txondorra kultur gunean lanean ari diren kide batzuk. N. LIZARRALDE

Herri mugimendu aberatsa du Egiak; 30 eragiletik gora daude. Euren proiektuak garatzeko espazio falta izan da zailtasunik handiena, eta gune propio eta autogestionatuak lortzeko hainbat pauso eman dituzte.

Eragile asko etxe bila ari dira oraindik

tua bulego txiki batean aurrera eramatea». 1.999. urtean Karmengo Amaren kaleko 4. zenbakian beste gaztetxe bat sortu zuten, baina berehala bota zuten. 2005ean Ametseneak hartu zuen lekukoa, Ametzagaina kalean, baina hura ere bota egin zuten, istilu gogorren artean.

Gune autogestionatuen hutsuneari aurre egiteko asmoz, eta aurreko belaunaldien lanari eutsi nahian, 2012an, gazte batzuek Garralda etxea okupatu zuten. Inauguraziorako jai bat

prestatu zuten arren, ezin izan zuten ospatu: «Eraikina garbitzen denbora pila bat eman genuen, baina, esperientzia gutxi genuenez, berehala kanpoan utzi gintuzten», kontatu du Txomin Campok. Halere, ez zuten etsi, eta auzoko hainbat eragilek ere gune autogestionatu bat behar zutela jabetuta, Auzoetxearen proiektua lantzen hasi ziren.

Onkologikotik bota ondoren, auzotarrek Gizarte Kutxari eraikina uzteko eskaera egin zioten. Udala bitartekari izateko baldin-

tza jarri zuen, eta udalarekin harremanak hasi zituen. Ez ziren ados jarri, eta bertan behera geratu zen egitasmoa.

Txondorra kultur gunea

Ez du Auzoetxearen izaera bera, baina hau ere bai, Egiak dituen espazio beharrei irtenbide bat bilatzeko bultzatutako proiektu bat da. Txondorra gunek euskara, kultura eta artea uztartzen dituen espazioa da. Duela bi urte hasi zuen bidea, hainbat auzotarrek bultzatuta, Karmengo Ama-

IRUTXULOKO HITZA
Ostirala, 2016ko apirilaren 29a

ren 60. zenbakian. Ttan Ttakun irratia eta Antxeta Ttan Ttakun aisialdi taldearekin partekatzen dute leku bera. Txondorra sortuz, lokala biziberritu, eta proiektu bideragarri bat lortu nahi zuten, espazioaren gastuak ordaindu ahal izateko, gutxienez.

Lan egiteko, bilerak egiteko, sortzeko eta ikasteko gunea da Txondorra. Musika gela, xilografia eta serigrafia tailerra, Hackmildegia... Bizi-bizirik dago Txondorra. Kontzertu eta solasaldiak ere egiten dituzte bertan.

Haur guneko guraso eta haurrek ere badute tokia Txondorran. Auzoko guraso talde batek sortu zuen taldea. Leku bat behar zuten, 0 eta 6 urte bitarteko haurrentzat ez baitzegoen ezer: «Haur txikiekin egiteko leku bat behar genuen, Donostia osoan ez baitago zerbitzurik. Duela hiru urte, esfortzu izugarria egin eta gero, lortu genuen udalak Haur Txokoa –6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako gunea– uztea goizez», esan du Haur gune-ko Amaia Galarzak.

90eko hamarkadatik

Hainbat egitasmoren babeslekua izan da Aitor ikastolaren gunea hau. Hain zuzen, guraso talde batek 90eko hamarkadan Antxeta Ttan Ttakun aisialdi taldeari utzi zion, gaztetxoentzako jarduerak egiteko.

Euskara sustatzeko proiektu gisa jaio zen, eta bertan sortu zuten jada hogeitik gora urteko ibilbidea egin duen Ttan Ttakun irrati libre eta euskalduna. Nahiz eta auzoko irrati gisa sortu, Donostia osora zabaltzea lortu du: «Udaleko euskara patronatua zenaren laguntza izan dugu ia hasieratik, baina geure kabuz lortu dugu bizirautea, eta irratia garatzea. Asanblada ireki baten bidez, unean-uneko egoerataraz moldatuz, gorantz egiten ari gara», adierazi du Asier Mendiabala irrati kideak.

nlizarralde@hitza.eus

SARTAGUDAKO ZAINZURIAK
ZURE ZAIN EGIKO PANTORI DENDAN

Pantori
EKOIZLE
TXIKIEN
DENDA
EGIAN:
Egia kalea 26
EGUNEKO
24 ORDUTAN:
pantori.es

Moztu eta eraman kupoi hau Egiako dendara eta %15eko deskontua izango duzu produktu guztietan. Deskontua 2016/6/1 arte baliagarria.

Tabako fabrikaren itxierak, lantegi izandakoaren etorkizunaren inguruko kezka piztu zuen zenbait bizilagunengan. Orduan sortu zen Egia Bizirik auzo elkartea; geroztik, euren ibilbideak ez du etenik izan.

Hamasei urte auzoa egiten

—NEREA LIZARRALDE

Auzotik eta auzoarentzat lanean ari da 2000. urtetik. Egia bezalako auzo «saltsero, bizi eta sortzaile» baten kezkak eta beharrak jaso, aztertu eta bideratzen ditu Egia Bizirik elkar-teak: «Kalean bertan nabaritzen da auzo bizia dela. Ekipamendu hobeak izango bagenitu, ziur hobetuko zela, noski», azaldu du Berdaitz Gurutzeaga kideak. Harro hitz egin du auzoak duen nortasunaz: «Erdialdetik oso gertu dago, baina oso desberdina da. Gauza asko eta asko ditu emateko, eta giro handia dago. Gainera, auzoaren erronkei heldu eta arazoei aurre egiteko prest daude bizilagunak».

Egun, fronte askotan ari dira borrokan. Plaza Haundin, auzoaren bihotzean, estalki bat jartzeko mobilizatzen ari dira; Iberdrolaren transformadoreek sortzen dituzten eragozpenak salatu dituzte; eta Kalapie elkartearekin batera mugikortasunaren inguruko txosten bat landu dute, zenbait zuzenketa eta proposamenekin.

Azken urteotan, hain zuzen, lan handia egin dute oinezko eta txirrindularien segurtasuna hobetzeko. Auzoan parte hartze prozesu baten bidez osatutako egitasmo bat egin zuten. Udal

gobernu aldaketarekin, ordea, proiektua aldatu egin zela argitu du Gurutzeagak, eta udal gobernuari eskatu dio auzoari buruzko proiektuak partekatze eta eztabaidarako aukera bat emateko: «Udalean aurkeztu dugun idatzi bat bera ere ez dute erantzun. Gauzak euren kasa egin nahi dituzte; orain arte erakutsi dutena, behintzat, hori da. Pentsaren bidez izan dugu hainbat aldaketen berri. Iazko azaroan izan genuen Duñike Agirrezabala Auzoetako zinegotziarekin bilera bat, eta ez du inolako emaitzarik eman».

Bidegorria auzora iritsi izana aurrerapauso handitzat jo du: «30 guneak sortu dira, espaloiak zabaldu dira... Oinezko zein txirrindulariak lasaia goazela nabaritzen da. Aparkatzeko arazoak hor jarraitzen du, eta Tabakalera berrituarekin eta autobus geltokiarekin egoerak okerrera egin du. Horri ere heldu behar zaio».

Tabakaleratik baztertuta

Tabakalera berrituz hitz egitean, sentimendu gazia dutela aitortu dute auzo elkarteak: «Beti izan da auzoarena, auzoan zegoen tabako fabrika bat zen. Hura berritzen hasi zirenean, Egiako eragileok bagenuen bertan espazio bat izateko esperantza, baina kanpoan geratu gara». Gurutzeagaren ustez, Egiakoek ez dute proiektu



Ezkerretik eskuinera, Egia Bizirik auzo elkarteak Amagoia Zelaieta, Lola Calvo, Berdaitz Gurutzeaga, Mikel Pikaza, Manolo Fernandez eta Juan Mari Jauregi. EGIA BIZIRIK

tuan parte hartzeko aukerarik izan: «Oso polita da entzutea Tabakalera auzoan integratuta dagoela, baina auzoari entzuten badiozu, esango dizu zer behar duen, eta guk espazio falta larria izan dugu betidanik. Tabakalera lan taldearekin egin izan ditugu jarduera batzuk, baina beti eraikinetik kanpo. Erakundeek ez dute ezer jakin nahi Egiaz. Ahal izan balute, eraikina Egiatik eraman, eta Miramarren jarriko zuten. Ez dugu inolako zalantzarik».

Autobus geltokiaren lanen inguruan, informazio falta izugarria izan dela dio: «Geltokiaren inguruko hirigintza lanak nolakoak izango ziren, obraren eraginak... Azalpen bat bera ere ez». Pasabideko lanak ere kritikatu ditu: «Kristoren obrak egin dira Tabakalera berritzeko, eta pasabidea ez da ia landu. Ulertzen dut erakunde asko daudela tartean eta ez dela erraza. Baina bukatuko da proze-

su guztia, eta pasabideak oraindik jarraituko du berritu gabe. Egiakoak beti azkenak. Mimo gutxiarekin egin dute, egia esateko».

Gentrifikazioaren kezka

Tabakalerak eta autobus geltoki berriak auzoan izan dezaketen eraginaz hitz egiteko goizegi delakoan dago Gurutzeaga, eta ardura hori agintariei dagokiela uste du: «Arduradunek aurreikusi behar ko lukete, eta hori landu. Guk auzo elkarte gisa baliabide gutxi ditugu. Agerikoa da aparkatzeko arazoa larritu egin dela, baina beste kezka bat ere badugu, gentrifikazioarena, adibidez. Momentuz ez dugu nabaritu, baina arazoa zein da konturatzen zarenako beranduegi dela».

Hirigintza ikuspegitik auzoan aldaketa handiak eman direla esan du: «Mandasko Dukearen ingurua, esaterako. Atotxako futbol zelaia kendu zuten, eta babes ofi-

zialeko etxeak egin zituzten—2003an sartu ziren bizilagun berriak—. Ekipamenduei dagokienez, kiroldegia egin, eta Plaza Haundi berritu zutenetik—duela 10 urte—, ez da gehiegi egin. Tejerian zegoen osasun etxea Ametzaginan ireki dute».

Merkataritzari erreparatuta, auzoko saltoki tradizional asko itxi egin direla, eta lokal asko hutsik daudela nabarmendu du: «Merkataritza zentro handiak babestu izanak eragina izan du, noski».

Egiako auzotarren arazo larrietako bat leku falta izan dela adierazi du: «Gu Egia kultur etxe ko bilera batean biltzen gara, ez dugu lokalik. Porrontxo jaietakoek badute biltegi txiki bat, Aitzarte mendi taldeak badu bere lokala... Baina besteek ez dute lekurik. Espazio propio eta autogestiona tuak aldarrikatu ditugu beti, eta oraindik ere erronka bat da».

nlizarralde@hitza.eus

SERENGETI
EYEWEAR



Aukera itzazu
eguzkitako
betaurreko
onenak

Mandasko Dukearen pasealekua, 51 (Tabakalera eraikinaren parean)
DONOSTIA - Tel.: 943 27 30 49 - www.optika.eus

bai
euskara
zerbitzua
euskaraz

**LINAZASORO
OPTIKA**
desde
1964tik

«Garatzen eta eraldatzen jakin izan duen auzoa izan da»

ENEKO GOIA DONOSTIAKO ALKATEA

Nortasun handia du Egiak, alkatearen hitzetan. Tabakalerak onura asko ekarri dizkiola dio, eta inguru horretan egindako birgaitzeak auzoan zehar jarraipena izango duela aurreratu du.

—NEREA LIZARRALDE

Nola definituko zenuke Egia auzoa? Zein ezaugarri nabarmenduko zenituzke?

Nortasun handiko auzoa da zalantzarik gabe. Eta baita donostiar askok oraindik arakatzeko duten auzoa. Trenaren etorrerak eragin handia izan zuen auzoan, horri gehitu egin behar diogu malda bizian eraikitako gunea dela, bai beherantz eta baita gorantz ere, Polloeraino. Atotxako futbol zelaia eta tabako lantegi baten jarduera ere bizi izan zuen auzoak.

Nortasun berezia bai, baina baita garatzen eta eraldatzen jakin izan duen auzoa izan da Egia. Bizitza luzea duen auzoa.

Aurrera begira zein erronka ditu udalak Egian?

Egiak, Donostiako beste auzoek bezala, hiri proiektu amankomun bati ematen dio erantzuna. Horrela ulertu behar dugu auzoa, osotasun baten parte bezala. Hala ere, auzo bakoitzak bere ezaugarri eta bereizgarriak ditu. Egia nortasun handiko auzoa da, hiri egituraketak eta auzo langilearen izaerak ematen diotena.

Bestalde, aurrera begira udal honek baditu erronka ugari auzoan. Adibidez, Tabakaleraren berrikeritzak onura ugari ekarri ditu auzoaren zati baten birgaitzean, eta horrek bere jarraipena izango du auzoan zehar. Mugikortasun arloan bidegorriaren eta 30 guneen erronka dugu aurretik, bizikletaren aldeko apustua mantentzen dugulako garraio sistema jasangarri bezala. Euskara aldetik, orain dela aste gutxi amaitu berri da Euskaraz Bizi Nahi Dugulako kanpaina, emaitza txukunekin.

Ezin ahaztu krisi ekonomikoaren eraginak auzotarren bizitzan ere eragina izan duela. Egiak %13,8ko langabezia tasa du, hiriko batez bestekoa %12,7 denean; beraz, gainetik dagoen tasa. Errenta maila aldiz hiriko batez bestekotik behera koka-



DONOSTIAKO UDALA

tzen da, eta Diru Sarrerak Bermatzeko laguntzen eskatzaileen zenbatekoa batez bestekotik gora. Egiatarrek beren bizitza proiektua duintasunez gure hirian gauzatu ahal izatea da udal honek duen xede nagusia, eta horretan ez dugu hutsik egingo.

Zeintzuk dira abian diren proiektuak?

Proiektu aipagarriena Tabakalera eraikina martxan jartzea da, zalantzarik gabe. Arte Garaikidearen erakuslea izango den espazio honek Egia auzoa izango du ardatz. Eraikina irailean berrireki zen, martxa ona izan du, baina egia da oraindik badituela espazio batzuk betetzeko. Denborak emango dio bai edukia bai azken itxura eraikin guztiari.

Bestalde, inguru horrek ere jaso ditu bere aldaketak; Blas de Otero plaza horren adierazle da. Auzoko zaharren egoitzan ere berritze lanak aurreikusi dira. Bidegorri proiektua uda partean aurkeztu zen eta dagoeneko erabilgarri daude. Aurreko ekainean udaleko ardurak hartu genituenean hiri garbi eta zainduaren aldeko apustua egin genuen, horren harira jarri ziren martxan auzoetako garbiketako plan intentsiboak, hauek Egia auzotik ere pasa ziren. Orain hasiko dira, gainera, saneamendu lanak, 1,5 milioi eurotako inbertsioa. Auzoak euskara lantzeko gune aproposa direla uste dugu, eta Egia lan horretan aitzindari izan da. Kultura eta aisialdi arloan, Jareñon berritze lanak ere badira martxan; Gazteszenan, zehazki.

Azkenik, autobus geltoki berriari erreferentzia egitea nahitaezkoa da. Gatazka eta kezka gunea izan den Egiako pasabidearen arazo nagusienak konpondu ditugulako. Oraindik badago lana egiteko, baina Egiak lortu du azkenik auzora sartzeko merezi zuen sarbide duina. Ez alde hone-tatik bakarrik, Izuetako zubibidean eta Astiñeneko zubian be-

rritze lanak ere gauzatuko ditu udalak; beraz, auzora sartzeko sarrikeri onurak izango dituzte.

Zure ustez, Tabakalera berritua nola eragiten ari da auzoan?

Tabakalera berriak Egian izan duen eta izaten ari den eragina guztiz baikorra da. Horretan ez dut zalantzarik. Elementu askoren batuketa da, jakina, baina, esan bezala, Egiako pasabidea konpontzeak auzora joateko bidea erakargarriagoa egin du, Tabakalera inguruko eremuak birgaitzeak ere auzoaren balio azpimarratzea lortu du. Oraindik donostiar askorentzat, Egia arakatzeko dagoen auzoa da. Tabakalera erakargarria izan daiteke bertako merkatari txikiak, tabernak eta beste jarduerak ezagutzeko. Betiere modu jasangarri batean. Baina Donostiako erdigunea beste esparruetara zabaltzeko lan horretan, Tabakalerak ezinbesteko papera jokatu du.



«Autobus geltokiaren onurarik ikusgarriena pasabidearena izan da»

«Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako kanpaina oso eraginkorra izan da»

«Egiak duen altxorrik handienetakoa, baita hiriak ere, Kristina Enea parkea da»

Azpimarratu nahi dut Tabakaleraren beste lorpen bat dela honakoa: Egia auzoa Donostia erdira gerturatu egin du. Hiriko erdigunearen muga harago eramandu Tabakalerak, eta, gaur gaurkoz, Donostiako erdigunearen kontzeptua zabaltzen egin du. Lehen trenbideak egiten zuen

muga birrindu duelakoan nago. Donostiarrek, gaur, ez dute Egi urruneko auzo bat bezala, Donostiaren erdi erdian dagoen gunerri bat da.

Eta autobus geltoki berria?

Esan ohi den moduan, hiri honek hiritarrekiko izan duen zor historikoa izan da autobus geltokiarena. Bistakoa da geltoki honek jende mugimendu handia sorrarazi duela Maria Kristina zubiaren bi aldeetan, eta guretzat hori oso positiboa da. Hiri honetan existitu izan diren hesi mental eta fisiko asko hautsi ditu eta.

Gainera, garraio sistema eta mugikortasunari dagokionez, Egiako ingurua ardatz bihurtu da. Autobus geltokiari, trena eta etorkizun batean etorriko den Abiadura Handiko Trena gehitu behar zaizkio. Honi ere bizikleta sarea eta errenta sistema ere gehitu behar dizkiogu. Beraz, auzoko behealdeko gunera iristeko konexioa behintzat landuta dago.

Aurretik esan dudanez bezala, autobus geltokiak modu nabarmenean izan duen onurarik ikusgarriena Egiako pasabidea-rena izan da.

Bidegorria ere duela gutxi sartu da auzoan.

Bai, hala da. Honek osatu egiten du hirian zehar zabaldua dagoen bidegorri sarea, dagoeneko 65 kilometroko sarea dugu hirian zehar. Bidegorrien helburua hiri barruko mugikortasuna indartzea da, hau da, alde batetik bestera egin beharreko desplazamenduak erraztea. Baina, aldi berean, hiri barruko bidegorriak ere beste udalerrietakoekin bat egiten du. Egiako bidegorriek, adibidez, hori ahalbidetzen dute, Mandasko Duketik Egi kaletik gora egiten duen bidegorria Loiola eta Martutenera iristen da, eta bertatik Astigarraga eta Hernanirako bidea jarraitzen du.

Merkataritza sustatzeko proposamen bat aurkeztu zuen Ikei enpresak. Gomendio horiek kontuan hartu al dira?

Udal gobernu honek gertuko merkataritza babestu nahi du. Bateragarriak izan behar dute mota ezberdinetako gunerri komertzialak elkarbizitza, beste edozein hiritan gertatzen den moduan. Egi auzo izaera sendoa duen gunea da eta bertako merkatariek horretan zeresan handia dute. Egiak duen izaera propio horri eusten laguntzen diote dendek, eta udalak babesa eman behar dio horri.

Egi Bizirik-ek Plaza Haundi egokitze proiektu bat aurkeztu dio udalari. Proposamena aztertzen ari zarete?

Halaxe da, azterketa fasean den proiektua da. Bere unean ikusiko dugu zer egin.

Auzo antolatua da Egi, hainbat eragile ditu, eta auzo elkarre mugitua du. Nolako harremana duzue beraiekin? Honek errazten al du proiektuak kudeatu eta egiteko lana?

Nik pertsonalki oraindik ez dut aukerarik izan Egi Bizirik auzo elkarrearekin biltzeko. Beste auzo eta bizilagun elkarrekin izan dut harremana, Uli, Parte Zaharra, Igeldo edo Amara Zaharra, besteak beste, baina Egiakoekin presentzialki ez. Hala ere, badakit aktiboak direla sare sozialetan, eta Twitter bidez bidaltzen dizkidaten argazki eta mezuak irakurri eta dagokion departamentuari helarazten dizkiot. Beste eragile eta hiritar guztientzako bezala, udaletxeko ateak zabalik daude guztiontzat.

Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako kanpainaren jarraipena egin al duzu? Zer iruditu zaizu?

Alkate bezala erabateko konpromisoa daukat gure hiria euskararen erabilera eredu izan dadin. Donostia Euskararen Hiria dela dio udalaren kanpaina batek. Zentzu horretan, euskara bultzatu eta sustatzeko egiten den edozein ekimen onuragarria da, eta helburu eta asmo horiekin bat dator. Egian Euskaraz Bizi Nahi Dugulako kanpaina oso baikorra eta eraginkorra izan da, gure ustez. Egian euskara hutsean bizitzea oso zaila izan arren, bertako bizilagunek ustekabe atsegin asko hartu dituzte. Erdaraz hitz egiteko ohitura zuten taberna, denda eta komertzio askotako zerbitzariak euskaraz egin dietenean, euskaraz bazekitela konturatu dira; edo, euskara maila handirik izan ez arren, euskararekiko jarrera baikorra dutela, eta ahalegina egiteko prest daudela. Auzoko bizi-ohiturak euskalduntzeko urrats garrantzitsua izan da, gure aburuz.

Zein da Egiako zure txororik gustukoena?

Nire ustez, Egiak duen altxorrik handienetakoa, baita hiriak ere, Kristina Enea parkea da. Gainera, parke honek zubi lanak ere egiten ditu, Urumearentz eramaten gaituelako, Amara aldera, edo baita Loiolako Erriberara ere.

Porrontxo jaietan izan al zara?

Egi esan, oraindik ez dut aukerarik izan. Iraila hilabete aktiboa izaten da normalean, estropadak, Zinemaldia, seme-alabak eskolara bueltan... Baina gauza hauetarako inoiz ez da berandu izaten. Ea agendak laguntzen duen!

nlizarralde@hitza.eus

Iztueta eta Astiñeneko sarrerak egokitzea izango dute orain xede

-ARITZ SORZABAL

Egiako pasabidea Donostiako puntu kritikoetako bat izan da betidanik; segurtasun faltarengatik, bereziki. Autobus geltokiko eta Tabakalera inguruko lanen bitartez, auzora sarrera duin bat dute orain egitarrek, Eneko Goia alkateak berak esandakoa- ren arabera. Bada, Egiako beste bi sarreretan ere, Iztueta eta Astiñenekoan, egokitze lanak aurreikusita ditu udalak.

Hain zuzen ere, 2016. urteko aurrekontuen arabera, Iztuetako zubibiderako 590.000 euro dau- de bideratuta; Astiñeneko zubi- rako, berriz, 175.000 euro lehen

fase batean, eta horietatik 75.000 euro desjabetzeak egin ahal izateko.

Loiolarekin muga egiten duen zubiak diru partida gehiago izango ditu 2017 eta 2018 urtee- tan, adostutako konpromisoen arabera; 1,65 eta 1,25 milioi euro, hurrenez hurren.

Iruresoro eta Blas de Otero

Aurreikusita dauden lanak dira horiek, baina iaz egindakoak ere garrantzi handikoak izan dira. Iruresoro plazako saneamendua berritzeko proiektua osatu zu- ten, esaterako, 26.600 euro in- bertitu eta gero. Lanak, berriz,

aurten eta hurrengo urtean gau- zatuko dituzte; 1,45 milioi euro bideratu dituzte horretarako.

Blas de Otero plazako birgaitze lanak iaz egindako obra nagusie- netako bat izan zen; diru kopu- ruari begira, behintzat. Milioi bat euro baliatu zituzten horre- tarako, eta Egiako zaharren egoi- tzan hobekuntzak egiteko lanak egitea erabaki dute, proiektura- ko bideratutako 1,2 milioi euroak behar bezala baliatzeko.

30 kilometro orduko gunek eta bidegorriarekin loturak dira landutako beste esku hartze ba- tzuk.

asorzabal@hitza.eus

Auzorako aurrekontuak

INBERTSIOA

Diru kopurua. 2015 eta 2018. urte bitarteko diru partidak aurreikusita ditu udalak. Guztira, 8.202.139,68 euro bideratu ditu Egi auzora; horietatik 2.214.888,28 baliatu ditu jada.

PROIEKTUAK

Blas de Otero plaza. 1.200.000 euro. 1.015.978,36 erabili ditu pla- za berritzeko, eta gainontzekoa zaharren egoitzan hobekuntzak egiteko erabiliko du.

Autobus geltokiko sarreraren hirigintza lanak. 1.027.853,10 euro. 733.911,10 baliatu ditu, eta gainontzekoa igogailua eta ikus-

men urritasuna dutenentzat taulak egiteko baliatu du.

Tabakalera ingurua osatzeko lanak. 170.000 euro. 53.116,22 ba- liatu ditu momentuz, Egi, Man- dasko Dukea eta Mundaiz kale- en arteko bidegurutzeko lanak direla-eta.

Atotxako lur azpiko pasabi- dea. 200.000 euro. Udala Renfe- ren argi berdearen zain dago esku hartze honi ekiteko.

Dbus. 192.000 euro. Autobus konpainiari ekarpen hori egin behar izan dio, Aldapa-Egi mi- krobus linea berriak galera izan duelako.

Saneamendua. 26.600 euro ba- liatu zituen iaz Iruresoro plaza- ko saneamendua berritzeko proiektua osatzeko. 2016 eta

2017. urteetan, 1.451.055,92 euro bideratu ditu lanak gauzatze aldera.

30 kilometro orduko guneen eta bizikletentzako bideen lo- turen proiektua. 220.550 euro, 2015 eta 2016 urteetarako. 193.282 erabili ditu jada.

Iztuetako pasabidea. 590.000 euro, 2016. urterako.

Kultura. 49.080,66 euro, 2016. ur- terako. Jareñon egingo ditu la- nak; terrazan eta Gazteszenan, hain zuzen ere.

Astiñeneko zubia. 100.000 eta 75.000 euro bideratu ditu 2016. urterako; desjabetzeak gauza- tzeko erabiliko du azken kopuru hori. Honez gain, 1.650.000 eta 1.250.000 euro bideratu ditu, 2017 eta 2018 urteetarako.



Herritar batzuk, Egiako pasabidetik igaro eta gero. Ingurua erabat berritu dute. AGURTZANE ALTUNA

Bost egiatarrek euren auzoaren inguruan emandako iritziak bildu ditu IRUTXULO KO HITZAK; orokorrean, pozik daude bertako zerbitzuekin, baita aisialdirako dituzten aukerekin ere.

«Ez nuke ezergatik aldatuko»



«Hiriko leku pribilegiatu batean bizi gara»

Julian Pascual
Erretiratua

Auzoak asko irabazi du. Donostiako erdialdean gaude; hiriko leku pribilegiatu batean bizi gara. Zerbait gehiago egin daitekeen auzoa hobetzeko? Dударik ez, beti egin daitezke gauzak. Adibidez, espaloiak eta lorategiak zertxobait utzita daude. Baina, bueno, ulertzen dut beste auzo batzuk ere euren beharrak izan ditzaketela, eta denontzako dirurik ez egotea. Egian, zerbitzu asko ditugu: autobus geltoki berria, dendak, trena... Tabakalarekin itxuri berrituago bat lortu dugu. Gainera, auzoa oso handia ez denez, bizilagunen artean eza gutzen gara, eta horrek harremanetan eta giroan laguntzen du. Beraz, dugunarekin oso gustura nago. Beste auzo batzuetatik ere mugitzen naiz, bereziki, Gros eta Altzatik; baina Egia ez nuke ezergatik aldatuko.



«Hemengo denda txikiak nekez ari gara bizirauten»

Amaia Jauregi
Dendaria

Ez dakit berezko garapenagatik edo krisi ekonomikoagatik izan den, baina auzoak asko galdu duela uste dut. Inguruan jartzen ari diren saltoki handien eraginez, hemengo denda txikiak nekez ari gara bizirauten. Badirudi, auzoak lo egiteko bakarrik izatea nahi dutela. Bezeroak dendara etortzea, batekin eta bestearekin hitz egitea... horrek ematen dio bizitasuna auzo bati. Tabakalera eta autobus geltokiak, oraingo, ez digute ezer onik ekarri. Aparkalekuak eta zirkulazioa kendu dizkigute. Lehen, Egia kaletik pasatzen zen jendea; orain, beste bide batzuetatik doa. Horren ondorioz, guk bezeroak galdu ditugu. Halere, gauza onak ere badaude! Erdialdetik gertu dago; egiatarrek oso jatorrak dira; artista asko daude, eta kutsu hori hiri osoan zehar erakutsi behar dugu.



«Auzo mitikoa da; aisialdirako nahi adina aukera ditu»

Jon Jaka
Bizilaguna

Auzo mitikoa da; aisialdirako nahi adina aukera ditu: Gazteszena, Bukowski, Kata taberna... horiek guztiak oso mitikoak dira. Gainera, Egian eragile asko daude. Porrontxo jaiak, adibidez, oso ezagunak dira. Kirolari dagokionez, Sudur Krosak jendetza mugitu du, Egia Eskubaloia ere badago, eta txirrindularitza proba bat ere egiten da. Plaza Haundin jarduera pila egiten dira; auzoaren erreferentzia gunea da. Bestalde, auzo langilea da, eta oso soziala. Kanpoko edo beste auzoetako jendea beti da ongietorria. Azken batean, Egia herri txiki baten antzekoa da: kaletik zoazela, bi metro egin eta lagun, ezagun edo familiakoekin topo egiten duzu. Gabeziaren bat aipatze aldera, eskailera mekaniko batzuk jarriko nituzke, kristoren aldapak baititugu. Eta Plaza Haundi estaltzea nahiko nuke.



«Ikastolak Egiako zati bat izan behar duela argi izan dugu»

Nerea Txapartegi
Irakaslea

Ez nintzateke ezergatik Egiatik mugituko. Herri txiki moduko bat da; konfiantzazko giroa sortzen da, eta nik horri balioa ematen diot. Ikastolak Egiako zati bat izan behar duela argi izan dugu beti. Beraz, hona datozen neska-mutiek zuzeneko harremana dute auzoarekin, bizilagunek bertakoa sentitzen dutelako euren burua. Gainera, aisialdirako aukerak baditugu, eta asko gure artean antolatzen ditugu. Bizimodua hemen egin nahi duenarentzat kale giroa badago. Poteoa asko jaitsi da, baina badira oraindik auzotik ibiltzen diren kuadrilla gazteak. Gabezia handiena erosketena dela esan daiteke. Elikatzeko molda gaitzke beste inora mugitu gabe, eta lan handia egiten ari dira bertako dendak sustatzeko. Arropa erosteko, berriz, atera behar gara. Baina hori ez da txarra!



«Kultura eskaintza ikaragarria da edozein egunetan»

Josu Urbietta
Ostalaria

Egia, agian, Donostiako auzo bereziena da. Askorentzat itsusiena bada ere, nik oso gustukoa dut. Hemen ez dituzu ikusiko eraikin neoklasikorik, ez eta frankiziarik ere. Nortasun horrek, batzuetan, bisitariak uxatzen ditu, baina bertakoentzat lasaitasuna eta babesa suposatzen du. Gainera, uste dut Egiak lortu duela hirigune guztietan ikus daitekeen homogenizazio triste horretatik ihes egitea. Kultura eskaintza ikaragarria da edozein egunetan saiatzen bazara ere. Gutxien estimatzen dudana da zirkulazioa, eta horrek sortu duen zarata. Eta azken boladako presentzia poliziala neurritz kanpokoa iruditzen zait. Faltan sumatzen dut gauza bat bereziki: noizbait Egia kalea oinezkoena egitea, tranbia koloretso batekin, gora eta behera, Lisboakoan antzera.





Egia kalea, 18 | DONOSTIA | www.lebukowski.com

**Goizero,
10:00etatik
aurrera
irekita!**